

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 674

*69/2021 EBAZPENA, urtarrilaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen den eranskinean ageri diren esleipendunak estatutupeko pertsonal finko izendatzen direla, Mantentze-lanetako eta Instalazioetako Erdi-mailako teknikaria kategorian txanda ireki bidez, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakunde sanitarioetan izanik.*

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bidez, Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren (2018ko otsailaren 8ko EHAA 28. zk.).

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 14ko 185/2018 Ebazpenaren bidez, Erdi-mailako Teknikariak lanbide-taldeko Mantentze-lanetako eta Instalazioetako Erdi-mailako Teknikaria kategorian estatutupeko pertsonal izateko hautaprobak deitu ziren, destinoa Osakidetzako zerbitzu-erakunde sanitarioetan izanik (2018ko martxoaren 5eko EHAA 45. zk.).

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren abenduaren 11ko 860/2019 Ebazpenaren bidez, Osakidetzan webgunean argitaratzeko agindu zen oposizioaldia gainditu duten txanda irekiko izangaien zerrenda, azken puntuazioaren arabera eta lehiaketaldiko puntuazioa eta oposizioaldiko puntuazioa bananduta, Erdi-mailako Teknikariak lanbide-taldeko Mantentze-lanetako eta Instalazioetako Erdi-mailako Teknikaria kategorian estatutupeko langile izateko hautaprobei dagoen puntuazioa, hain zuzen ere. Izangai horiek Osakidetzako zerbitzu sanitarioen erakundeetan izango dute destinoa.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 16. oinarrian xedatutakoari jarraikiz, Mantentze-lanetako eta Instalazioetako Erdi-mailako Teknikaria kategorian izangaien behin betiko zerrenda Epaimahaiak onartu eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusi honetara bideratu ostean, zerrenda hori webgunean argitara dadin; eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen legeriak egozten dizkidan eskumenez baliatuz

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetzako webgunean argitaratzeko agintzea eranskinean ageri diren esleipendunak estatutupeko pertsonal finko izendatzen direla, Erdi-mailako Teknikarien lanbide-taldeko Mantentze-lanetako eta Instalazioetako Erdi-mailako Teknikaria kategorian txanda ireki bidez, destinoa Osakidetzako zerbitzu-erakunde sanitarioetan izanik.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute destinoaz jabetzeko, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusian hartu beharko da destinoaren jabetza; horretarako, hautagaiak hitzordua eskatu beharko du lehenbizi, eta ekitaldian dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

– NANA, pasaportea edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetakoz nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko deklarazio bat edo hitzemate bat aurkeztu behar dute beste ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazteko eta, hala badagokio, hautagaia haren kontura edo kargura dagoela adierazteko.

– Elkargoko kide izatearen egiaztatzea, deialdiko oinarri espezifikotan hala eskatzen denean.

– Diziplina-espeditente bidez hautagaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzematea.

Espainiako nazionalitatea ez duten hautagaiek, Espainiako Estatuari buruzko deklarazioaz gain, zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzeari eragozteko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisiko egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetzako Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetzan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaraten ez direnak, edo, agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatu-tupeko pertsonal gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesatuei jakinarazten zaie lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokien epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituztela hautaprobei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkien eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, dagokion izangaia lanpostuaz jabetzen bada, beharrezko eginbideak bete eta hurrengo egunean hasiko da lanean, osasun-zerbitzuaren barruan esleitu zaien erakundean.

2021eko otsailaren 8a, astelehena

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 18a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2021eko otsailaren 8a, astelehena

## ERANSKINA

2016-2017KO OSAKIDETZAKO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA

DESTINOEN ESLEIPENA

KATEGORIA: INGENIARI TEKNIKOA

TXANDA: IREKIA

NAN/IFZ/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Derrigortasun-data	
***9849**	Perez Gomez, Carlos Lorenzo	Arabako ESla, Arabako Unibertsitate Ospitalea	3HE	
***5208**	Berasategui Ordeñana, Jon	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	3HE	
***7534**	Lanas Ruiz De Munain, Jose Antonio	Arabako ESla, Arabako Unibertsitate Ospitalea	3HE	
***7544**	Elizegi Zurutuza, Arkaitz	Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	3HE	
***1143**	Ganboa Elorriaga, Mikel	Uribeko ESla, Urdulizko Ospitalea	3HE	
***7662**	Saez De Ojer Aldekoa, Joseba Andoni	Bilbo-Basurtuko ESla, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	3HE	2011-06-01
***3706**	Muzas Eisenhofer, Jon Iñaki	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	3HE	
***2837**	Garcia Sayes, David	Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea, Zaldibarko Ospitalea	3HE	